



19. Zkia.: 2019ko Urriak

Artikutzako ttanttak

Artikutzako ttanttak

Aurkibidea

ELKARRIZKETA	3
DESKUBRITZEA.....	5
Basoa erabiltzea.....	5
Baso heldu baterantz.....	6
ARTIKUTZA IRUDIETAN	7
ERRAIETATIK.....	8
BILDUMA.....	10
Prunus avium.....	10
SUAREN EPELEAN.....	12
IRUDI GALERIA.....	12

ELKARRIZKETA

Ana Ariz Argaya mendi-ingeniaria da eta ohituta dago Nafarroako iparraldean ibiltzen eta lan egiten. Izan ere, Artikutzako baso-antolamendua egin zuen taldeko zuzendaria izan zen. Gaur, gurekin dugu, eta azalduko digu zertan den bere lanbidea eta nolako garrantzia duen basoen iraunkortasunerako.

Zer moduz, Ana? Plazer handia da zu gurekin izatea. Mesedez, zure burua aurkeztuko duzu eta azalduko diguzu nolako harremana duzun mendiarekin, eta Artikutzarekin, bereziki?

Nafarroako Gobernuak lehiaketa bat egin zuen, 2009an, Baso Antolamendurako Proiektua eta Artikutza Batasuneko Garrantzizko Lekuaren (BGL) Kudeaketa Plana idazteko. EKILAN enpresak irabazi zuen lehiaketa eta, hala, hura arduratu zen bi dokumentu horiek idazteaz.



Artikutzako pinudi batean neurketak egiten. AGZKIA: Ana Ariz.

Baso-antolamenduaren ideia interesatzen zaigu; izan ere, oharkabe samar gelditzen den kontzeptua da. Azalduko diguzu zertan datzan eta nola egiten den?

Baso-antolamenduaren proiektua biltzen duen dokumentuak mendiaren azterketa eta kudeaketa-proposamen bat (jarduera zehatzekin) jasotzen ditu; proposamena denborari dagokionez nahiz espazioari dagokionez egiten da, denbora-epe jakin baterako, han ageri diren helburuak lortzeko. Horien jasagarritasunerako, kontserbaziorako, kudeaketarako eta garapenerako berme bat izan behar du.

Egia da jende askori, Artikutzara etortzen denean, ideia kaotiko samarra gelditzen zaiola basoaren egoerari buruz; egur hil asko dago lurlean barrena eta egoera sasi-basatiaren sentzazioa ematen du... Bada horretarako azalpenik?

Artikutzan, jarduerekin lotutako kudeaketak basoberritze artifizialeetatik sortu diren multzoetan jartzen du arreta batez ere. Bertako pagadi eta hariztietan, ez da aurreikusten mozte-jarduerarik egitea. Horregatik, multzo gehienek oinak adin handikoak direnez, fenomeno meteorologikoak direla-eta, lurrera erotzen dira zenbaitetan. Beste mendi batzuetan, zuhaitz horiek egurretarako edo saltzeko erabiliko lituzkete jabeek. Hala ere, Artikutzan erabaki da kasu gehienetan han bertan uztea. Irudi dezakeenaren kontra, egur hila funtsezkoa da basoaren elikagai-zikloan, eta babesleku, ugaltze-leku edo negualdirako txokoa izaten da baso-kiroptero askorentzat, baita, besteak beste, honelako animalientzat ere: narrastiak, intsektuak, gau-harrapariak, ornogabeak, saprixilofagoak eta beste asko. Hortaz, egur hila duen baso bat ez da, uste genezakeenez, baso abandonatu bat. Egur horrek izugarriko garrantzia du.



Pinuen diametroa neurtzen. AGZKIA: Ana Ariz.

Eta, orduan, zer onura eta zer alderdi txar ekar ditzake baso-antolamenduak Artikutza bezalako lursail batean.

Baso-antolamenduak gauza onak besterik ez ditu ekartzen mendietarako, baita Artikutzarako ere. Funtsezkoa da, lehenik eta behin, gure basoetan zer dagoen jakiteko. Zer espeziek osatzen duten, zer multzo mota dauden, zer berezitasun dituzten; lurzoruak, ibaiak eta errekek, fauna eta azpimarragarria den guztia. Bigarrenik, eskuratu nahi ditugun helburuak finkatu eta gero, funtsezkoa da egin beharreko jarduerak ezarri ahal izateko, antolamendu planifikatu batekin eta jasangarritasunaren eta kontserbazioaren nahitazeko premisatik abiatuta. Mozte-jarduerak, hobekuntzak egitekoak, kontserbatzekoak, azterketak egitekoak, etab.

Kontserbazioari dagokionez, oro har, zein dira irizpide tekniko garrantzitsuenak? Ildo horri jarraitzen zaio Artikutzan?

Gaur egun, Artikutza “Babes Bereziko Zona” da eta “Natura 2000 Sararen” kidea; horrez gain, badu kudeaketa-plan bat; hori dena 264/2015 Foru Dekretuan dago onetsita. Kudeaketa-planak neurri aktiboak eta prebentziozkoak proposatzen ditu, honako hauen kontserbazio-egoera bermatzeko: habitat naturalak, espezieak, prozesu ekologikoak eta

lursailen dauden elementu natural eta kulturalak. Kudeaketa-plan hori betetzea da bermerik handiena kontserbazioa egokia izan dadin.

Kudeatzaile edo aholkulari izanda, zure ustez, Artikutzako egoera beste nonbaiteko egoerarekin konpara daiteke? Edo ezagutzen duzu bestelako irizpideak erabiltzen dituen beste zonarik, kontserbazioa helburu handiena izanda?


Artikutzaren kasua berezia da; izan ere, haren jabea Donostiako Udala da, eta kontserbazioaren alde egitea eta multzo naturaletan “esku ez hartzea” erabaki du. Nafarroako mendien jabe gehienek (herrienak nahiz pribatuak) oreka bilatzen dute kudeaketaren eta kontserbazioaren artean, eta errentak lortzen dituzte, besteak beste, zura eta egurra saltzeagatik, bai multzo naturaletakoa bai basoberritzeetakoa. Baina, Artikutzaren kasuan, basoberritzeen multzoetan mozketak egiteko bakarrik hartzen da esku. Udalak egurra ateratzeko azpiegitura gehiago ez egitea ere erabaki du, eta, beraz, sarbiderik gabe ezin da baso-multzorik moztu. Erabakia ezohikoa da, eta nik, behintzat, ez dut halako beste kasurik ezagutzen.

DESKUBRITZEA

Basoa erabiltzea

Artikutzan egiten den baso-kudeaketaren helburua ez da etekin ekonomikoa, baizik eta paraje hartako baso-egitura hobetzea. Baso naturala eta ongi egituratua lortzea da azken helburua, adin desberdineko zuhaitzak dituen (gazteak, helduak eta zaharrak) eta gure laguntzarik gabe denboran zehar iraunkorra dena.

Artikutzako basoak basatiak edo gizakien esku-hartzerik gabeak iruditzen bazaizkigu ere, ez da hala, inondik inora. Abiapuntua dugu orain dela 100 urte basoa erabat ustiatuta zegoela; bazeuden lepatutako zuhaitzak, ikatza lortzeko eta ez askoz gehiagorako erabiliak. Udalak erosi zuenean, basoberritzeari ekin zitzaion, hazkunde azkarreko espeziekin, baita bertako espezien leheneratzea sustatzeari ere. Hala, esan daiteke egungo pagadiak zuhaitz zaharrek (oraindik bizirik dauden pago motzak) osatzen dituztela, baina zuhaitz berri samarrek ere bai (azken 100 urtean hazi direnak). Segida horretan, adin ertaineko zuhaitzak faltako lirateke.



Pago bat, zutik mantentzeki eusten.



Enbor eroriak, hildako egurra eta hostoak lurtean pilatzen dira.

Gaur egun egiten diren jarduerak sartu ziren espezieak kendu eta bertako basoa sortzera bideratuta daude nagusiki. Hala ere, kasu gehienetan ez da landatzerik egiten mozketa egin eta gero. Artikutzako lursailaren azaleraren parte handiena gehiegi itxitako basoa da, non soilguneak tartekatzen baitira beste habitat desberdin batzuekin. Eta, gainera, han aukera dago naturak bere bidea egin eta espezie egokienak sortu den soilgune hura har dezan.

Behar bereziei erantzuteko, zenbait esku-hartze egin dira larriki kaltetutako espezieren bati laguntzeko. Horixe izan da haginaren kasua. Artikutzan, ia 500 urteko haginak daude. Azken 100 urtean basoan gertatu den leheneratze-prozesuari esker, pagoen eta haren bizkortasunaren mende gelditu dira erabat, eta, hala, haien hazkuntza eta ugaltzea kaltetu egin dira. Kasua aztertutakoan, hagin batzuk askatu dira beren erreakzioa ikusteko. Hala, haiek estaltzen zituzten pagoak moztu egin dira. Kasu gehienetan, hosto eta kimu berrien hazkuntza nabaritu da. Halaber, ugaltzearen hobekuntzan lan egiten ari da, orain arte oso eskasa baitzen. Horretarako, zuhaixka-formako espezieak landatu dira fauna erakartzeko, betez ere hegaztiak, haien hazien ernetzeko gaitasuna hobetu eta haziak hedatu dituzten.

Baso heldu baterantz

Baso heldua ez da zehazki baso adindu bihurtzen dena... Badu nolabaiteko harremana basoaren bizitzaluzerarekin, baina, haratago joanda, kontzeptu horrek baso-mota interesgarri bat azaltzen laguntzen digu, ikuspegi naturaletik aberatsa baina, aldi berean, urria. Zenbait ezaugarri bete behar dira esateko baso bat heldua dela: basotzat jotzeko, gutxieneko azalera bat izan behar du; ez dago gizakiaren esku-hartzerik (denbora luzean) eta adin guztietako zuhaitzak izaten dira (hori ez da ohikoa izaten egurra helburu duten basoetan. Jakina, badaude zuhaitz zaharrak); nabarmena da hango egur hila, lurrean nahiz zutik...

Baso mota horiei buruz hitz egiten da bai maila teorikoaz bai naturalistakoaz, batez ere bioaniztasunari dagokionez ekartzen duten aberastasunarengatik. Izan ere, zenbait espezie (batzuk desagertzeko arriskuan) egotea ere heldutasunaren adierazle izaten da, hala nola okilak, kakalardoak, goroldioak eta likenak... Artikutzan, baditugu horietako batzuk. Esan dezakegu azken 100 urtean poliki-poliki egindako kudeaketa nagusiak ekarri duela lursaileko zona batzuek baso helduen ezaugarriak hartzea, eta bioaniztasunaren sorlekua izaten dira horrelako basoak.

Baso helduei buruzko informazio gehiagorako, zenbait ekimenen estekak dituzue hemen.

- <http://www.trasmochos.net/>
- <http://www.redbosques.eu/>
- <http://www.arbolesviejos.org/>



Izkutaleku on bat zutik dagoen zuhaitz batean.

ARTIKUTZA IRUDIETAN



Pago motz zahar bat haritz amerikar gazteen artean.

ERRAIETATIK

Antonio Zavalak Artikutzan gertutako pasadizo pare bat bildu ditu Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak liburuan (bilduma, 1967, Auspoa). Pasadizoari buruzko Elamako mendian izeneko bertsoak Pello Zabaletarenak dira, bera eta anaia Artikutzan lanean egon ziren garaikoak. Bi anaiak Errenteriakoak ziren, eta gainerako langileak, goizuetarrak edo arantzarrak.

Liburuak dio Pello, gazteena baitzen, sukaldari-lanetan jarri zutela arrantxo prestatzen. Seietan jaikitzen ziren, eta 8ak arte lan egin. Baratzuri-zopa izaten zuten gosaltzeko, eta berriz lanera, 12ak arte. Bazkaltzeko, lehenbizi, babarrunak (saldarik gabe); gero, txorizoa, gazta edo bakoitzak etxetik ekartzen zuena. Postrerako, babarrunen salda. Eta berriz lanera, 6ak arte. Afaltzeko ordua, eta menua, eguerdiko bera, baina denen artean ordaindutako ogiarekin eta ardoarekin lagunduta. Eta, hala, egunean 13 errearen truke.



*Egur hat amilduta
gaur jo dit eltzian,
gutxinez amar metroz
juan da airian;
gero mendiyak bera
biraje luzian,
ni atzetik segika,
eltzia aurrian,
errekan billatu det
arkaitza tartian.*

*Kilometro erdi bat
egit det korrika,
zuek amildutako
eltziaz segika;
farrez egon zerazte
neri atzetika,
bañan gerora etzan
orlako pozika,
gaur amarrak artian
etzan gosairika.*



Artikutzako urtegia urez beteta zegoenean.



Artikutzako magal bat.

*Eguaiziak ekartzen ditu
askotan naigabe txarrak,
lengo batian ekusi ditut
amar t'erditan ederrak;
orbel gañian zeuden erropak
erre ditu su ta garrak,
brusarik gabe gelditu dira
Aranaz ta Goizutarrak.*

*Gosal onduan utzi zituzten
erropak orbel gañian,
ni iturrira bajatu nitzan
egarritu ziranian;
arrantxeritik sua juango zan
aize-kolperen batian,
ni berriz bueltan etortzerako
geienak erriak zian.*



Auzoa.

Liburua Euskaltzaindiaren webgunean
eskuragarri dago:

http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/auspoa/10630.pdf

Zabaletatar bi anaiei buruzko informazio gehiago eskura dezakezu, *bertzozalen*:

<https://bdb.bertsozale.eus/>

BILDUMA

Prunus avium

Deskribapena eta ezaugarri fisikoak

Gereziondoa oso zuhaitz altua eta lerdena da eta, egoera naturalean, 30 m luze ere izan daiteke. Zuhaitz hostoerorkorra, sendoa eta adaburu handikoa. Haren azala oso berezia da; grisa eta lisoa, ale gazteetan, eta, heldu bihurtu ahala, goitik beherako marka edo ildo batzuk sortzen zaizkio, eta, hala, erraz bereizten dira. Hostoak sinpleak, aldizkakoak, zerradunak eta punta findunak dira; oso txortan luzea dute, eta, hostoaren laminatik hurbil, bi glandula gorrixka edo beltzaxka. 6-15 cm luze izaten dira, eta 3-8 cm, zabal. Udazkenean, berdetik okrera, laranja eta gorrira jotzen du, eta, horri esker, gereziondoak bereizi egiten dira basoko beste espezieetatik. Loreak zuriak dira eta 2-8ko taldeetan sortzen dira. Udaberri hasieran loratzen dira, gainerako zuhaitzak oraindik hostoak atera ez dituztenean; hori dela eta, gereziondoak oso ikusgarriak dira, oso urrutitik ere.



Azala. AGZKIA: Hans-Martin Scheibner (CC BY-SA 3.0). www.ritmenatura.cat



Hostoen glandulak . AGZKIA: André Abrahami (CC BY-SA 2.5). www.ritmenatura.cat

Fruitua jangarria da eta oso estimatua. Gereziak elikadura-baliabide oso garrantzitsua dira basoko animalia askorentzat, eta, ereindakoak bezain gozoak ez badira ere, oso aberatsak dira bitaminatan eta gatz mineraletan. Fruitua mamitsua da eta hezurra dauka barrenean. Heldutakoan, gereziak distiratsuak eta lisoak dira; gorri kolore bizikoak, baina horitik gorri ilunera edo marroi oso ilunera ailega daitezke tonalitateetan. Binaka agertu ohi dira, zintzilik, txortan luze bati lotuta. Heltzen direnean, udaberriaren bukaeran, erraza da lurrean barrena ikustea.

Ekologia eta banaketa

la Europa osoan barna, Asiako mendebaldean eta Afrikako iparraldean zabaldua dago gereziondoa. Bertako espezieetat jotzen da, baina, haren hazkuntza oso hedatuta dagoenez eta erraz basatzen denez, haren banaketa erreala askoz ere zabalagoa da.

Iberiar penintsulan, iparraldeko espezieetat jotzen da, besteak beste, pagoen, haritzen eta gaztainondoaren espezie laguntzaile gisa. Idortean eragina izaten du harengan, eta, askotan, ur-ibilbideekin lotu izan da; horregatik, hegoaldean, inguru menditarrenak eta hezeenak bilatzen ditu

gereziondoak. Izan ere, gutxi gorabehera, itsas mailatik 1.500 metrora hazten dira, baina, Sierra Nevada, 2.000 metroan ere izaten dira. Ez du inporta zer substratutan, baldin eta lurzorua ongi garatuta badago.

Artikutzan, ohikoa da oin solteak ikustea, edo multzo txikiak, haritzen eta pagoen artean. Erraz ezagutzen dira beren udaberriko loratze emankorrenengatik; hori dela eta, oso ikusgarriak dira urrutitik, beren bizilagunen hostoak oraindik ere atera ez direnean.

Erabilerak eta bitxikeriak



Gereziondo xafra

Basa-gereziondoa da landatutako barietate guztien jatorria, eta txertaketak egiteko eredu gisa ere

erabiltzen da haren landartasunarengatik. Haren fruituak balio gastronomiko handia duenez, gereziondo asko zabaldu da munduko eremu epeletan, greziarren eta erromatarren garaietatik hasita; horiek modu zabalean hedatu zuten Mediterraneoaren arro guztian barrena. Zuhaitz hori lorezaintzan ere erabiltzen da, loratze ikusgarria duelako. Badira horretarako sortutako zenbait barietate.

Zurari dagokionez, beharbada, zurgintzaren arloko estimatuenetako bat da, bere kolore gorrixkarengatik eta bere gogortasunarengatik. Besteak beste, altzairuak eta musika-tresnak egiteko erabiltzen da.



Gereziak. AGZKIA: Steffen Prößdorf (CC BY-SA 3.0). www.ritmenatura.cat



Gereziondo bat loraldian. AGZKIA: Benjamin Gimmel (CC BY-SA 3.0). www.ritmenatura.cat

SUAREN EPELEAN

Zuhaitzen bizitza sekretua



Peter Wohlleben-ek 2015ean argitaratutako liburu horren 300.000 kopia saltzea lortu zuen. Liburuaren jatorria egileak berak Hümml udalerrian (Alemania) basozainlanetan egindako behaketak dira. Ustiapenera bideratutako lanbide baten errutinek eta ildoek jota, naturarekiko kezka eta pasioak eraman zuten, poliki-poliki, basoaren behaketa sakona egitera eta aldaketa mantsoak hautematera, inguratzen gaituen azkartasunetik eta bat-batekotasunetik at; hori gaur egungo pertsona arruntentzat ia imajinaezina da.

Liburuak ezagutzen eta esperientzia propioen berri ematen du; horiek gaien egindako aurrerapen zientifiko batzuekin nahasten ditu, eta irakurlea zuhaitzen bizitzaren leku sakonera eraman eta hura erakusten dio: beren komunikaziorako gaitasunak, beren kidekoen arteko elkartasuna, beren gizarte-bizitza...

Azken batean, zuhaitzen eta basoen ikuspegi berri bat aldarrikatzen du, gure planetako bizian funtsezko osagaiak baitira eta haiekin modu batean edo bestean beti lotura izango baitugu.

IRUDIEN GALERIA



Clathrus archeri, ziza inbasorea. A. Santana



Craterellus cornucopioides, A. Santana

Artikutzan ateratako argazki bitxi edo kutunen bat gurekin partekatu nahi baduzu, bidaliezaguzu honako helbide honetara:

artikutzanatura@donostia.eus! Horrekin batera, bidali zure izen-abizenak eta aipatu noiz edo nola atera duzun argazkia eta idatz ezazu harentzako izenburu bat.

“Artikutzako Ttanttak” buletina jaso nahi baduzu, bidali zure datuak (izena, abizenak eta posta elektronikoa) artikutzanatura@donostia.eus helbidera eta posta elektronikoz jasoko duzu.

Halaber, jarduera bat egin nahi baduzu edo informazioa jaso, jarri gurekin harremanetan;

Telf.: 620 337 875



Basurde aztarnak. A. Santana



Papirus mukis baso erdian. E. Ruiz



Ziza. E. Ruiz.



Eta ziza gehiago. A.



Donostialdea Bianditzetik. A. Santana



Bisitariak Mendeurrenaren irteeran. E. Ruiz

Eta gainera seinale berriak estreinatu ditugu...



Bideak seinalatu...

... eta mapak eguneratu ditugu.





DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ingurumena
Medio Ambiente

